eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL



# Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritza

## 2023ko MEMORIA

www.ehu.eus

# Aurkezpena

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritza* **UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren** mende dago, eta **eginkizun du iraunkortasunaren kultura eta gizarte konpromisoa sustatzea** unibertsitatean eta, oro har, gizartean. Irakaskuntzaren, ikerkuntzaren eta kudeaketaren esparruan aritzen da, honako helburu hauekin:

- **Gure baliabideen erabilera eraginkorragoa bultzatzea, koherentea ingurumenaren eta pertsonen bizi kalitatearen babesarekin eta hobekuntzarekin.**
- **Ingurune akademiko ekintzaile eta berritzaile bat sortzea, eraginkortasunean eta sormenean oinarritutako irtenbideak aurkitzeko XXI. mendeko arazoei.**
- **Aldaketa bultzatzea gizartearekin konprometitutako unibertsitate baterantz, inklusioa, ekitatea eta iraunkortasuna sustatuta.**
- **Unibertsitate jardueraren onurak maximizatzeko eta inpaktu kaltegarriak minimizatzeko ekintzak abiaraztea, bai eta gure ingurunearen eta planetaren eraldatze sozioekonomikoa eta garapen soziala laguntzea ere.**

* 2023ko irailera arte, Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko Zuzendaritza.

# Taldea:

| | | |
|---|---|---|
| **Guillermo Quindos Andrés** | Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea | vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus |
| **Estíbaliz Sáez de Cámara Oleaga** | Iraunkortasunaren arloko zuzendaria | estibaliz.saezdecamara@ehu.eus |
| **Nekane Castillo Eguskitza** | Ingurumeneko teknikaria | nekane.castillo@ehu.eus |
| **Isaac Barrio Marin** | Hondakinen eta Ingurumen Kalitatearen arloko teknikari kudeatzailea | isaac.barrio@ehu.eus |
| **Miren Korta Merino** | Iraunkortasuneko teknikaria | mirenitxaso.corta@ehu.eus |
| ***Felipe García Esteban**** | Gizarte Konpromisoko teknikaria | felipe.garcia@ehu.eus |
| ***Estíbaliz Martínez Villabeitia**** | Lankidetzako teknikaria | estibaliz.martinez@ehu.eus |
| **Idoia Olazar Uriagereka** | Administratzailea | idoia.olazar@ehu.eus |

** Irailetik, EHUgune – Konpromisoa eta Eragin Soziala Zuzendaritzan*

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## HONDAKINAK (1)

### HONDAKINEN KUDEAKETA

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritza hiru unibertsitate gunetan aritu da (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola. Eibar, Biblioteka, eta Bilboko Ingeniaritza Eskola): **13 edukiontzi jarri ditu hiri hondakinak biltzeko** (papera eta kartoia, ontzi arinak, organikoa, errefusa, etab.).

Halaber, Bizkaiko Campuseko parke zientifikoko Maria Goyri Animali Bioteknologiarako Gunean eta Arabako Campuseko Farmazia Fakultatean, jatorri kimikoko hondakin arriskutsuen biltegia egokitzen eta prestatzen aritu da, eta substantzia likidoen isuriak prebenitzeko **kubetak** eta sortutako hondakinak antolatzeko **apalategiak** ipini ditu.



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## HONDAKINAK (2)

**ONLINE IKASTAROA:** "Jardunbide egokiak laborategian", **hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzkoa**.

**Helburua**: hondakin arriskutsuak kudeatzeari buruzko gutxieneko ezagutzak ematea laborategian aritzen diren pertsonei (irakasleak, teknikariak edo langileak).

**Iraupena:** 25 ordu (1 ECTS kreditu).

10. edizioan (2023/02/07 – 2023/03/17) eta 11. edizioan, euskaraz eta gazteleraz, **317 ikaslek** parte hartu dute (% 65 emakumeak, % 34 gizonak, % 1 ez-bitarra), **% 87ko arrakasta tasarekin**.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## HONDAKINAK (3)

**PRESTAKUNTZA PRESENTZIALA:** ***"Hondakin arriskutsuen kudeaketa: sailkapena eta biltegiratzea"***

3 prestakuntza saio egin dira, 2 ordukoa bakoitza, hondakin arriskutsuak erabiltzen dituzten pertsonentzat. Saio horien helburua da praktikatik lantzea hondakin arriskutsuak sailkatzeko zailtasunak, bai eta prozedura batzuk sortzea ere hondakin horiek modu seguruan biltegiratzeko.

- Kimika Fakultatea: 2023/01/18 **(75 pertsona)**
- Martina Casiano plataforma: 2023/03/21 **(15 pertsona)**
- María Goyri Bioteknologia Gunea: 2023/06/20 **(20 pertsona)**



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## HONDAKINAK (4)

**UPV/EHUn PAPERA MURRIZTEKO ETA ZENTZUZ ERABILTZEKO KANPAINA: "PAPER ONA JOKATU!"**

UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak eta Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak bultzatuta, **2023ko maiatzaren 15etik 19ra**.

**Helburua:** gogoeta egitea paper gutxiago erabiltzeak duen garrantziari buruz. Horretarako, **jardunbide egoki** batzuk planteatzen dira, **unibertsitatearen eguneroko jarduueretan** erabil daitezkeenak, modu arduratsuan jokatzeko.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## HONDAKINAK (5)

### HONDAKINAK PREBENITZEKO EUROPAKO ASTEA (I)

Europako Batzordearen egitasmo honen xedea da baliabide iraunkorrei eta hondakinen kudeaketari buruzko sentsibilizazio ekintzak ezagutaraztea, sustatzea eta ezartzea.

Europa osoan egin da, 2023ko azaroaren 18tik 26ra, **“Ez zaitez biltzen utzi”** lemapean, eta ontzien kudeaketa iraunkorra izan du ardatz.

UPV/EHUko Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak informazio stand bat ipini du Gasteizko Ingeniaritza Eskolan, sentsibilizazioa bultzatzeko, eta 150 botila berrerabilgarri banatu dira.

Informazio gehiago






# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## HONDAKINAK (6)

### HONDAKINAK PREBENITZEKO EUROPAKO ASTEA (II)

Gainera, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen barruan, Bilboko Udalak antolatuta, UPV/EHUko Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritza elkarlanean aritu da Bilboko Ingeniaritza Eskolarekin **"Nola kudeatu hiri hondakinak?"** izeneko informazio hitzaldian.

Hitzaldian hainbat gai aztertu dira, hondakinak sailka biltzeari buruzkoak; batez ere, frakzio horiaren (ontziak), urdinaren (kartoia) eta berdearen (beira) edukiontzietan biltzen diren hondakinak.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## ENERGIA (1)

### PLANETA CAMPUSA BATZORDEA

Martxan jarri da Planeta Campusa batzordea, **UPV/EHUko Ingurumena eta Osasuna Kudeatzeko I. Planari (2019-2025)** atxikia, biltzen dituena ingurumenaren kudeaketan ardurak dituzten pertsonak, ikertzaile espezializatuak, ikasleen ordezkariak eta campusetako ikastegien buruzagitzen ordezkariak. Helburua da hobetzea UPV/EHUren ingurumen kudeaketa, arreta berezia jarriz energiaren alorrean.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## ENERGIA (2)

### JARDUNBIDE ENERGETIKO EGOKIEN ESKULIBURUAK

**Eraginkortasun energetikoaren kultura** sustatzeko unibertsitateko kideen artean, energia jardunbide egokien eskuliburuak sortu ditu UPV/EHUk. Besteak beste biltzen dituzte eguneroko jardueretan energia kontsumoa murrizteko aholkuak, bai eta ekipo eta teknologia eraginkorrak hautatzeko gomendioak ere.

Informazio guztia eskura daiteke “Energia eta klima aldaketa” webgune berrian.



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## ENERGIA (3)

### KARBONO AZTARNA KALKULATZEA

UPV/EHUk apustu egin du klima neutraltasunera iristearen alde, eta horren adibide da bat egin duela 2019ko Klima Larrialdi Egoeraren Deklarazio Gutunarekin .

Alde horretatik, 2023an, lehen urratsak egin dira UPV/EHUren Karbono Aztarna Korporatiboa kalkulatzeko (2019 – pandemia aurretik eta 2022 – pandemia ondotik). Karbono aztarna kalkulatzean, jakin daiteke **Berotegi Efektuko Gasen** (BEG) zer kantitate isurtzen den atmosferara UPV/EHUko irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa jardueraren ondorioz, eta aukera ematen du jakiteko zein diren BEG isurien iturri guztiak, bai eta, hori jakinik, murrizketa neurri eraginkorrak hartzeko ere.



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## KLIMA ALDAKETA (1)

### BIZITZA IRAUNKORRERAKO ERRONKA – The Planet App

**Helburua:** gure unibertsitatearen karbono aztarna murriztea, bizi ohitura iraunkorragoak hartuz aplikazio mugikor baten bidez.

Gainera, aplikazioak prestakuntza pilulak eskaintzen ditu:

- Klima aldaketaren oinarriak
- 2030 agenda eta GIHak
- Ekonomia zirkularra
- Ingurumen inpaktua
- Energia kontsumoa
- ...

Guztira › **3.100 parte hartzaile**




[Informazio gehiago]

INFOGRAFIA

# UPV/EHUKO BIZITZA IRAUNKORRERAKO ERRONKA

2022/2023 IKASTURTEA

UPV EHU

The Planet App



## + 2200 PARTE-HARTZAILEK

UPV/EHUko bizitza iraunkorrerako erronkarekin bat egin dute. Ikasleek, AZPk, IIPk eta EHUalumnik esperientziaz gozatu dute.

## LORTUTAKO HELBURUA: -1025 ton CO2 bk/urte

Parte-hartzaile guztien artean karbono-aztarna murrizteko helburua lortu dute.

*Parte-hartzaile guztien karbono-aztarnaren urteko murrizketa bateratua*




## IRAUNKORTASUNAREN INGURUKO IKASTAROAK




Klima-aldaketaren oinarriak

653 parte-hartzaile

190 graduatu jada



GIHak eta 2030 Agendaren sarrera

302 parte-hartzaile

215 graduatu jada



Ekonomia zirkularra

217 parte-hartzaile

165 graduatu jada

# UPV/EHUKO BIZITZA IRAUNKORRERAKO ERRONKA

2022/2023 IKASTURTEA

UPV EHU

The Planet App

## OSATUTAKO PILULAK GUZTIRA

>68.133 pilula

%78 zuzenak

## CO2 GUTXIKO OHITURA ESKURATUAK

>36.150 asteko ohitura konpromtetituak

>30.770 asteko ohitura arrakastarekin jarraituak

## TESTIGANTZAK

"Oso modu berritzaile eta entretenigarria iruditu zait interes handiko gaurkotasuneko gaiei buruz ikasten joateko egunero."
*Iraia Lansalot*

"The Planet App-ek klima-aldaketa eta iraunkortasuna bezalako gaietara hurbiltzeaz gain, zure bizitzan ohitura berriak txertatzen laguntzen dizu, modu interaktiboagoan eta bisualagoan."
*Ane Crispin*

"Entretenigarria izan da pilulak egiten joatea, eta argi ez nituen kontzeptu batzuk argitzeko balio izan dit"
*June Ramos*

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## KLIMA ALDAKETA (2)

ATTUNE
Activate the University for Climate Change

### ERASMUS+ *ATTUNE (Activate the University for Climate Change)* proiektua

UPV/EHUk, Europako beste lau unibertsitaterekin batera, ERASMUS+ ***ATTUNE*** egitasmoan parte hartzen du, unibertsitate campusetan klima aldaketaren gaia lantzen duen programa. Unibertsitateko kide guztien inplikazioa lortu nahi da.

Proiektuak 26 hilabete iraungo du eta 400.000 €-ko finantzaketa lortu da egitasmoa burutzeko.

Proiektuaren **1. fasean**, UPV/EHUko **800 lagun inguruk** parte hartu dute.

**2. fasearen** xedea da klima aldaketaren aurkako borrokan beren ekarpena egingo duten taldeak osatzea. **Sare Berdeak** plataformaren bidez egingo da, 2024tik aurrera.




[Informazio gehiago]

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## KLIMA ALDAKETA (3)

**ERASMUS+ *ATTUNE (Activate the University for Climate Change)* proiektua**

<u>**1. fasea:**</u> eskuliburu eta galdetegi sail baten bidez, gogoeta bultzatu nahi da gure kontsumo ohiturei buruz, iraunkorragoak izateko campusean (eta etxean):

- Hozkada iraunkorrak
- Gure baliabideei bizi eman: zirkulatu hondakinak
- Amatatu Campusa
- Mugitu mundu iraunkorrago baten alde
- Be water, my friend!



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## KLIMA ALDAKETA (4)

**ERASMUS+ *ATTUNE (Activate the University for Climate Change)* proiektua**

**2. fasea: SARE BERDEAK**

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, HAZIk eta UPV/EHUk sustatuta, **Sare Berdeak** tresna eraginkor bat da beren ingurua iraunkortasunaren aldeko urratsak egitera bultzatu nahi duten pertsonak ahalduntzeko.

Helburua da ingurumen aktibisten sare bat sortzea, elkarlanean aritzeko eta beren inguruan ingurumena hobetzeko ekintzak burutzeko.

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## KLIMA ALDAKETA (5)

UPV/EHUko Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak, REDS-SDSN Spain sarearekin batera, parte hartu du SDSNek, Climateworks Centre-k eta Monasheko Unibertsitateak eginiko gidan (*advisory board*) eta ondorengo gaztelaniazko itzulpenean: "Campus karbono-neutroa“.

Gidaren helburua da azeleratzea unibertsitateetan karbono aztarna murrizteko estrategien plangintza eta aplikazioa.

Estíbaliz Sáez de Cámarak aurkeztu zuen gida, maiatzean, Burgosen egin ziren XXXII. CRUE-Iraunkortasuna jardunaldietan.



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## MUGIKORTASUNA (1)



### EUROPAKO MUGIKORTASUNAREN ASTEA 2023

*“Konbinatu eta mugitu!”* lemapean, online jarduerak eta jarduera presentzialak egin dira, hiru campusetan, unibertsitateko kide guztiei begira (ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZEL).








Informazio gehiago

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## MUGIKORTASUNA (2)

### EUROPAKO MUGIKORTASUNAREN ASTEA 2023

**Jarduera presentzialak:**

**Bizkaiko Campusa**
- Formula Student auto elektrikoaren erakusketa
- BMW ibilgailu elektrikoen erakusketa
- Bizikleta tailerra
- Elektrolindegien aurkezpena

**Arabako Campusa**
- Informazio puntua
- Bizikleten Ikuskapen Teknikoa (BIT)
- Patinete elektrikoen zirkuitua eta tailerra
- Ibilbideak bizikletan

**Gipuzkoako Campusa**
- Bizikleta tailerra
- Ibilbidea bizikletan
- Bizikletada

**Online jarduerak:**

- Argazki lehiaketa
- Mugikortasun iraunkorrari buruzko galderen lehiaketa

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## MUGIKORTASUNA (3)

### EUROPAKO MUGIKORTASUNAREN ASTEA 2023

Europako Mugikortasun Astean, UPV/EHUk eta Euskadiko Parke Teknologikoak ibilgailu elektrikoak **kargatzeko puntu bikoitz** bat inauguratu zuten Bizkaiko Campusean (Leioa-Erandio gunea), mugikortasun iraunkorra sustatzeko egunero campusera doazen milaka pertsonen artean.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## EROSKETA ETA KONTSUMO ARDURATSUA (1)

### UPV/EHUko ELIKAGAI XAHUKETAREN KALKULUA: NEURTU, MURRIZTEKO

Txosten honen helburua da laguntzea elikagai xahuketa murrizten, UPV/EHUko hiru campusetako kafetegi eta jangela zerbitzuetan sortzen diren hondakinak neurtuta.

Kalkuluen arabera, guztira **sortzen dira 14,413 tona/urte** edo **28,202 g/egun/mahaikide**. Gainera, kafetegietara eta jangeletara eginiko bisitak aprobetxatuta, jardunbide egokiak aztertu dira: zeintzuk erabiltzen diren, zer mailataraino eta zer beste jardunbide jar daitekeen martxan elikagai xahuketa minimizatzeko.




Informazio gehiago

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## EROSKETA ETA KONTSUMO ARDURATSUA (2)

### UPV/EHUko ELIKAGAI XAHUKETAREN KALKULUA: NEURTU, MURRIZTEKO

Txosten hau aurkeztu zen **'Bizitza kalitatea, ingurumena eta birziklatze ohiturak'** izeneko jardunaldietan, 2023ko azaroaren 22an eta 23an egin zirenak Gasteizko Ingeniaritza Eskolan, Hondakinen Behatokiak, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak eta UPV/EHUk Hondakinen Prebentzioaren Europako Astearen testuinguruan antolatuak.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## Ingurumen inpaktua ebaluatzea (1)

crue
Universidades Españolas
Sostenibilidad
Grupo de trabajo sobre Evaluación de la Sostenibilidad Universitaria (GESU)

2023an, UPV/EHUren ingurumen inpaktuaren diagnostikoa egin da, horretarako erabiliz CRUE-Iraunkortasunaren Unibertsitate Iraunkortasuna Ebaluatzeko Lantaldeak (GESU) sortutako tresna.

Tresna hori sortu da ebaluatzeko unibertsitatearen ingurumen iraunkortasunaren maila, bai eta etengabeko hobekuntzako tresna gisa ere. Unibertsitatearen hiru funtsezko arloetan oinarritzen da: antolakuntza, irakaskuntza eta ikerketa, eta kudeaketa. Diagnostikoaren emaitzak jaso dira "GESU-CRUE-Iraunkortasuna (2024) Espainiako Unibertsitateen Ingurumen Iraunkortasunaren Diagnostikoa. 2023ko txostena. CRUE-Iraunkortasunaren Unibertsitate Iraunkortasuna Ebaluatzeko Taldea (GESU)" txostenean.

UPV/EHUk %1 inguruko hobekuntza izan du 2023an (2022arekin alderatuta) (%11 inguru 2021arekin alderatuta).

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## Ingurumen inpaktua ebaluatzea (2)

| Indicadores | Puntuación | Máximo | Porcentaje |
|---|---|---|---|
| Política de Sostenibilidad | 8,5 | 9 | 94,4% |
| Implicación y sensibilización de la comunidad universitaria | 11,5 | 12 | 95,8% |
| TOTAL Área 1: Organización | | | 95,1% |
| Docencia | 12,5 | 13 | 96,2% |
| Investigación y transferencia de tecnología | 9 | 12 | 75,0% |
| TOTAL Área 2: Docencia e Investigación | | | 85,6% |
| Urbanismo y biodiversidad | 5,5 | 6 | 91,7% |
| Energía | 11,5 | 15 | 76,7% |
| Agua | 8 | 9 | 88,9% |
| Movilidad | 8,5 | 10 | 85,0% |
| Residuos | 4 | 6 | 66,7% |
| Compra Verde | 17 | 18 | 94,4% |
| Evaluación del impacto ambiental de las actividades | 8 | 13 | 61,5% |
| TOTAL Área 3: Gestión Ambiental | | | 80,7% |
| Evaluación Global | | | 84,2% |

***UPV/EHUren iraunkortasun politiken ebaluazioaren 2023ko emaitzak***

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## Ingurumen inpaktua ebaluatzea (3)




***UPV/EHUren iraunkortasun politiken ebaluazioaren 2023ko emaitzak***

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## Ikastegien ingurumenarekiko konpromisoa

### IKASTEGIEN INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO PLANAK

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak aholkuak eta laguntza teknikoa ematen ditu Ingurumen Hobekuntzarako Taldeak mantendu, aktibatu edo, hala badagokio, berraktibatzeko, Ingurumen Hobekuntzarako Planak martxan jarri nahi dituzten ikastegietan, bai ingurumena kudeatzeko sistemen ziurtagiriei begirako auditoretzak prestatzeko, bai unibertsitateko jarduerak ingurumenean duen inpaktua minimizatzeko neurriak hartzeko.

2022/23 ikasturtean, **ikastegien % 74k Ingurumen Hobekuntzarako Planak dituzte**.

Informazio gehiago



# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## UPV/EHUn ingurumen ikuspegitik iraunkorrak diren ekitaldiak antolatzeko jardunbide egokien dekalogoa




UPV/EHUren Planeta Campusa Batzordeak sortu du **"Ingurumen ikuspegitik iraunkorrak diren ekitaldiak antolatzeko jardunbide egokien dekalogoa"**, helburutzat duena UPV/EHUk antolatutako edo haren instalazioetan egiten diren ekitaldien ingurumen aztarna txikitzea.

*"Ingurumen ikuspegitik iraunkorra den ekitaldi bat da ingurumenean izan ditzakeen inpaktu negatiboak minimizatzeko diseinatu, antolatu eta gauzatu dena"* (Ihobe, 2016).

Informazio gehiago

# Aurrera egitea unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean

## GIHak enpresen eta erakundeen kudeaketan txertatzeko esparrua

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak, Kalitatearen eta Ebaluazio Instituzionalaren arloko Zuzendaritzarekin batera, parte hartu du **GIHak** UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen **Kudeaketa Aurreratuko Ereduan (KAE) txertatzeko saio pilotuan**.

Gida/esparru honen helburua da metodo bat eskaintzea aztertzeko **zer mailataraino dagoen lerrokatuta gure kudeaketa sistema GIHekin**, garapen iraunkorraren ikuspegitik.

2030 Kontratu Soziala 2030 Agenda *Euskadi Basque Country*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KUDEAKETA AURRERATUA EUSKALIT GESTIÓN AVANZADA

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (1)

**Campus Bizia Lab** (CBL) programa sortu da Erasmus University Educators for Sustainable Development egitasmotik. UPV/EHU egitasmo horren partaide izan zen 2013-2016. urteetan.

CBL programaren xedea da lankidetzan oinarritutako prozesu bat abiaraztea UPV/EHUko ikasleen, irakasle-ikertzaileen eta TEKAZELeko langileen artean, unibertsitateak dituen iraunkortasun erronkei erantzuteko.

- 2022/2023 ikasturtea - 6. edizioa
- 2023/2024 ikasturtea - 7. edizioa

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (2)

### 2022/2023 ikasturtea - 6. edizioa

Proiektuak: 33
· ARABA – 10 · BIZKAIA – 17 · GIPUZKOA - 6






# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (3)

### 2023/2024 ikasturtea - 7. edizioa

Proiektuak: 28
· ARABA – 9 · BIZKAIA – 13 · GIPUZKOA - 6






# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (4)

Proiektuak



Talde-entrenamendua eta ikaskuntza esperientziala



Campus Berdea




Erronka jasangarria Erronketan Oinarritutako Ikaskuntzaren (EOI) bidez




Sentikortasun Handiko Pertsonen profil klinikoa, kognitiboa, nortasuna eta bizi-ohitura osasungarriak



Iraunkortasun, osasun eta GIHen hedapenerako ikasgela Arkitektura G.E.T.an



EHU-Aztarna2024

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (5)

**Proiektuak**




PIZTU proiektua



Literatura eta GIH



Energia mini eolikoaren bideragarritasun integrala



CIRCURAEE




GreenLAB



Hizkuntza erantzukizuna

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (6)

Proiektuak



Eraldaketarako Hezkuntza



Klimatizaziorako energia-kontsumoa optimizazioa (KEKO)

EHUgaz

ODS Irratia



EBAPEN: Energia berriztagarriekin autokontsumo partekatua Eibarren



EHU-Aztarna2

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (7)

**Proiektuak**



EHUsuds



Leioako campuseko berde guneak: aldaketa klimatikori aurre egiteko aukera



Azoka agroekologikoa Arabako Campusean




Lehenengo urratsak hezkuntza graduetan benetako hezkidetza sustatzeko bidean



EHUkhi: UPV/EHUren potentzial fotovoltaikoa garatzeko plataforma



Errealitateak eraldatuz: Ikaskuntza-Zerbitzua GALetan

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (8)

[Proiektuak]



ARTEKOM



Arabako Campuseko Baratza Ekologikoan



Elikagai eskaintza eta kontsumoa UPV/EHUn



IRAUNCAMPUS



Olio mineralen emultsioen ordezkapenak

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (9)

### 2023ko Argitalpenak


Adelantado Renau, M. et al. 2023. STEAM en el huerto. 10 propuestas de proyecto científico para educación secundaria. Coords: Marcia Eugenio y Dani Zuazagoitia. GRAO educación.

Apaolaza Llorente, D., Castrillo, J., Idoiaga Mondragón, N. 2023. Are women present in history classes? Conceptions of primary and secondary feminist teachers about how to teach women's history. Women´s studies International Forum, 98, 102738.

Aperribay-Bermejo, M., Encinas Reguero, M.C., Ibarluzea Santisteban, M. 2023. Leer para un mundo mejor. Literatura Infantil y Juvenil y Objetivos de Desarrollo Sostenible. Tirant Lo Blanch. ISBN 978-84-19632-59-3.

Aperribay-Bermejo, M., Esparza Martin, I. 2023. Haur eta Gazte Literatura eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak. En Asier Romero, Israel Alonso, Ana Urrutia, Naiara Berastegi, Monike Gezuraga y Nahia Idoiaga (Eds.) Estructura modular, metodologías activas y compromiso social en innovación educativa universitaria. La experiencia de la Facultad de Educación de Bilbao (pp. 175-186). Octaedro. ISBN 978-84-19506-37-5.

Armentia, A., Arriaga, C. 2023. Educación musical contra la LGTBIFOBIA. Eufonía: Didáctica de la música,97, 16-22

Artetxe, O., Darretxe, L., Idoiaga, N., Galarza, L. 2023. Familias Monomarentales Derivadas de Violencia de Género. Multidisciplinary Journal of Gender Studies 12(2), 201-237.

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (10)

### 2023ko Argitalpenak


Bastarrica, O., Vizcarra, M.T., Mártinez, J., López-Vélez, A.L. 2023. El Aprendizaje-Servicio Universitario en la Educación Física escolar: una revisión sistemática. Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación 48, 128-137. ISSN: 1579-1726.

Bastarrica, O., Vizcarra, M.T., Martinez-Abajo, J. 2023. Experiencias del alumnado de educación física con ApSU en contextos vulnerables. En Roman, G. y Orcasitas-Vicandi, M. (Ed.), Innovación educativa y diversidad. El rol del capital etnocultural como eje del cambio. Barcelona: Editorial Graó. ISBN 978-84-19416-34-6

Billard, T. J., Cornelius-White, J. H., Ozamiz N. 2023. Anti-transgender prejudice: causes, consequences, and interventions. Frontiers in Psychology, 14.

Calvo, I., Armentia, A., Gil-García, J.M., Apiñaniz, E., Barambones, O. 2023. Aprendiendo los ODS por medio de un sistema IoT de monitorización IEQ en el campus. 18th Iberian Conference on Information Systems and Technologies (CISTI), Aveiro, Portugal. ISBN: 978-989-33-4792-8.

Calvo, I., Carrascal, E., González Pérez, J.M., Gil-García, J.M., Basogain Olabe, X., Escudero, C., Garcia-Adeva, A., Barambones, O. 2023. Experiencia multidisciplinar para introducir los ODS en automática, XLIV Jornadas de Automática, Zaragoza. ISBN: 9788497498609.

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (11)

### 2023ko Argitalpenak

Castrillo, J., Gillate, I., Apaolaza, D. 2023. Otra Edad Media. La Querella de las mujeres como recurso para abordar las desigualdades de género ayer y hoy en el aula de historia. Perfiles Educativos, XLV (179), 146-162.

Coronel Gastiain, U., Palacios Agundez, I., Perales-Fernández-de-Gamboa, A., Rico, A. 2024. Kulturarteko hezkuntza eta Garapen Iraunkorreko Helburuetarantz bidea eginez World Café-aren bidez: eskola baten esku-hartzea. UZTARO-Revista de Humanidades y Ciencias Sociales, prentsan.

Corrochano, D., Zuazagoitia, D. Eugenio-Gozalbo, M., Monferrer, L., Ortega-Cubero, I., Ruiz-González, A., Aragón, L 2023. A three-pronged method to analyse pre-service teachers' understanding and epistemic reasoning about soil. Journal of Biological Education.

Etxebarria, O., Vizcarra, M.T., Gamito, R., López-Vélez, A.L. 2023. Trans reality in the educational system: A systematic review. Revista de Psicodidáctica, 28(2), 104-114.

Fernandez, I. L., Dosil-Santamaria, M., Idoiaga Mondragon, N., Ozamiz-Etxebarria, N. 2023. Teachers' Involvement in Inclusive Education: Attitudes of Future Teachers. Education Sciences 13(9), 851.

Fernandez, P., Idoiaga, N., Jaureguizar, J. 2023. Comparing social representations of feminism among education and engineering majors: Insights for developing feminist pedagogies. Feminism & Psychology 33(2), 256-275.

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (12)

### 2023ko Argitalpenak

Gamito, R. eta Fernández-Lasarte, O. 2023. Catálogo de recursos educativos extraescolares en Lantziego Ikastola: proyecto de Aprendizaje-Servicio. In E. Alastor, E. Sánchez-Vega, I. Martínez-García eta M. Rubio-Gragera (Koordk.), Investigación en educación con TIC: retos y oportunidades (60 or.). UMA editorial.

González Alriols, M., Onaindia, E., Nuñez, J.D., Barrio, I., Antxustegi, M. 2023. Collaborative learning and practical experiences in engineering studies: Working on Sustainable Development Goals. Education and New Developments 2023 (2), 158-161. ISBN: 978-989-35106-4-3.

González-Pérez, R., García-Iruretagoyena, L., Martinez-Perez, N., Telleria-Aramburu, N., Telletxea, S., Padoan, S., Torheim, L.E., Arroyo-Izaga, M. 2023. Prevalence and predictors of food insecurity among students of a Spanish university during the COVID-19 pandemic: FINESCOP project at the UPV/EHU. Nutrients 15(8), 1836.

Hachmioune, I. G. E., Pastor, D. 2023. Trayectorias académicas de alumnas musulmanas con estudios universitarios: una aproximación. En Investigación e innovación educativa en contextos diferenciados, 1013-1020. Dykinson.

Herreros-Perea, E., Dosil, M, Idoiaga, N., Legorburu, I. 2023. Socialización de género en mujeres: un problema multifactorial. Dykinson, 575-579. ISBN: 978-84-1170-399-4

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (13)

### 2023ko Argitalpenak

Idoiaga Mondragon, N., Axpe Saez, I., Berciano Alcaraz, A. 2023. Educación para el desarrollo sostenible: el gran reto de la educación universitaria. En: Membiela, P., Cebreiros, M.I. Desafíos de la docencia universitarios actual. Educación Editora 45-55. ISBN: 9788415524496.

Idoiaga Mondragon, N., Eiguren Munitis, A., Ozamiz-Etxebarria, N., Picaza Gorrotxategi, M. 2023. Análisis y herramientas coeducativas: respuestas con perspectiva de género a los retos contemporáneos. Grao. ISBN: 9788419416438.

Idoiaga Mondragon, N., Yarritu Corrales, I., Axpe Saez, I. 2023. Educación Infantil: cómo cambiar la concepción sobre la sostenibilidad del alumnado mediante trabajos interdisciplinares. En: Urrutia, A., Romero, A., Alonso, I., Gezuraga, M., Idoiaga, N., Berasategi, N. Estructura modular, metodologías activas y compromiso social en innovación educativa universitaria. Octaedro 211-222.

Idoiaga, N., Yarritu, I., de Cámara, E. S., Beloki, N., Vozmediano, L. 2023. The challenge of education for sustainability in higher education: Key themes and competences within the University of the Basque Country. Frontiers in Psychology, 14.

Kanamori, Y., Jiménez-Etxebarria, E., Cornelius-White, J. H., Ozamiz-Etxebarria, N., Wynne, K. N., Gorrotxategi, M. P. 2023. Transgender Attitudes and Beliefs Scale-Spanish (TABS-S) Version: Translation and Initial Evaluation of Psychometric Properties. Journal of homosexuality 70(5), 831-850.

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (14)

### 2023ko Argitalpenak


Lekuona, A., Meaurio, M., Gredilla, A., Madrazo, E., Garmendia, M. 2023. Hiri Drainatze Sistema Jasangarriak (HDSJ) eta beren eragina hirietako isurketa-uren kalitatean. EKAIA EHUko Zientzia eta Teknologia aldizkaria.

López de Arana, E., Vizcarra, M.T., Calle, M. 2023. Revisión sobre los beneficios psicosociales de las personas receptoras en los proyectos de ApS. En EF. Bordón, revista de pedagogía 75(1), 111-126.

Madrazo-Uribeetxebarria, E., Garmendia Antin, M., Alberro Eguilegor, G., Andrés-Domenech, I. 2023. Analysis of the hydraulic performance of permeable pavements on a layer-by-layer basis. Construction and Building Materials 387, 131587.

Martín Toral, I., Calvo, I., Xenakis, J., Artetxe, E., Barambones, O. 2023. Architecture for Smart Buildings Based on Fuzzy Logic and the OpenFog Standard. Electronics 12(24):4889.

Mihura, A., Arriaga, C. (En prensa). Acciones artísticas para el empoderamiento de un grupo de niñas gitanas. En Sergio Maruenda y Mª Luisa Vázquez (eds.): Áreas de Conocimiento Científico y Objetivos de Desarrollo Sostenible: Las Universidades como motor de cambio ecosocial. Ed. Tirant Lo Blanc.

Pastor, D., Guerra, N., Rodríguez, I. 2023. Igualdad de género y atención a la diversidad: retos para la educación inclusiva Aprendizaje entre iguales en la Educación Superior desde las voces del alumnado. ISBN: 978-84-1170-541-7.

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## Campus Bizkaia Lab Programa (15)

### 2023ko Argitalpenak

Pereira, O., Calleja-Ochoa, A., Ayesta, I., Rodríguez, A., González-Barrio, H., López de Lacalle, L.N. 2023. A cleaner milling process replacing emulsion coolant by cryogenics. Int. J. of Precision Engineering and Manufacturing-Green Technology 11, 21-32.

Rico, A., Palacios-Agundez, I. y Agirre, E. El espacio verde escolar: Un contexto facilitador para el desarrollo de competencias STEM en Formación Inicial de Educación Primaria. En: La enseñanza de las ciencias en la educación primaria: Análisis de la situación, de la formación y propuestas de mejora. Tirant Humanidades, 183-194. Editores: Jordi Solbes y José Cantó. ISBN: 978-84-1183-129-1.

Rodríguez-Vidal, I., Otaegi, J., Armengod, U. 2023. Evaluating the Feasibility of Hybrid Ventilation in Educational Spaces: A Simulation Study in the Basque Country Climate. Environmental and Climate Technologies 27(1), 532-544.

Villarrazo, N., Caneda, S., Pereira, O., Rodríguez, A., López de Lacalle, L.N. 2023. The effects of lubricooling ecosustainable techniques on tool wear in carbon steel milling. Materials 16(7), 2936.

Yarritu, I., Idoiaga Mondragon, N., Axpe Saez, I., Arriaga, C. 2023. The representation of sustainability among university teachers: knowing the present to change the future. International Journal of Sustainability in Higher Education.

# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## JARDUNALDIA: *“Iraunkortasunaren aldeko GRAL/MAL”*

2023ko ekainaren 15ean, jardunaldi bat antolatu zen 2022/23 ikasturtean eginiko urratsak partekatzeko eta 2023/24 ikasturteari begira iraunkortasunaren arloko erronkak eta aukerak definitzeko.

Jardunaldi hori egin zen ***“UPV/EHUko iraunkortasunaren aldeko GRAL/MAL”*** lemapean, Bizkaia Aretoan, modalitate presentzialean, eta **75 lagunek** parte hartu zuten (% 64 emakumeak, % 36 gizonak).

Informazio gehiago



# Lankidetza sustatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

## unicitiES 2030

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak, Arabako Campuseko Errektoreordetzarekin elkarlanean, unicitiES 2030 egitasmoan laguntzen du.

Espainiako Estatuan zazpi hiri aukeratu dira, tartean Gasteiz, neutraltasun klimatikora heltzeko 2030. urtea baino lehen. Ondorioz, Arabako Campusa desafio hori gainditzeko laborategi bihurtu da.

Egitasmo honen helburua da bultzada ematea unibertsitatearen eta hiriaren artean eginiko GRAL/MALei, ikasleak, irakasleak eta udal langileak batera aritu daitezen irtenbideak elkarrekin lantzen eta **hiri eraldaketa iraunkorra** sustatzen, **neutraltasun klimatikora** heltzeko hiriek dituzten desafioei aurre eginez.

Informazio gehiago

SDSN Spain | RED ESPAÑOLA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE

citiES 2030

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CIENCIA, INNOVACIÓN Y UNIVERSIDADES

# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (1)

**UNIBERTSITATE ARTEKO ESPEZIALISTA TITULU BERRIA: *"2030 Agendaren eta GIHen Integrazio Estrategikoa, Jarraipena eta Komunikazioa"***

Unibertsitate graduondoko berri hau sortu da Eusko Jaurlaritzaren, UPV/EHUren, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen elkarlanetik.

**Hizkuntza:** gaztelania
**Kreditu kop.:** 45 ECTS kreditu
**Eskolak emateko lekua**: Bilbo



Informazio gehiago

# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (2)

**ONLINE IKASTAROA:** ***"Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?"***

Iraunkortasun gaietan interesatuta dauden graduko ikasleentzat: iraunkortasunaren erronka nagusiak eta nola aurre egin erronka horiei hezkuntzatik eta gizarte konpromisotik.

**Iraupena**: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

10. edizioa (2022/02/07 - 2022/03/21) euskaraz eta gaztelaniaz egin da, eta parte hartu dute **85 ikaslek** (% 63,5 emakumeak, % 35,3 gizonak, % 1,2 ez-bitarrak), % 59ko arrakasta tasarekin.

Informazio gehiago



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (3)

**ONLINE IKASTAROA: *"Independizatu egiten zara? Bizirauteko eta kontsumo arduratsuko kita"***

UPV/EHUko ikasleentzat, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko irakasleen eskutik.

**Iraupena**: 25 ordu (1 ECTS kreditu).

1. edizioa (2023/10/18 - 2023/12/05) euskaraz eta gaztelaniaz egin da, eta **85 ikaslek** parte hartu dute (% 75,3 emakumeak, % 20 gizonak, % 2,3 ez-bitarrak), % 53ko arrakasta tasarekin.

Informazio gehiago



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (4)

**ONLINE IKASTAROA: “*Garapenerako Unibertsitate Lankidetza*”**

Garapenerako unibertsitate lankidetzan hasi nahi duten graduko ikasleentzat.

**Iraupena**: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

10. edizioa (2023/02/06 - 2023/10/05) eta 11. edizioa (2023/10/05 - 2023/11/16) euskaraz eta gaztelaniaz egin dira, eta **198 ikaslek** parte hartu dute (% 73,2 emakumeak, % 26,8 gizonak), % 57,1eko arrakasta tasarekin.

Informazio gehiago



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (5)

### ONLINE IKASTAROA: "*Finantza etikoak*"

Ekonomia eta enpresa adarreko graduko eta graduondoko ikasleentzat, finantzen munduan sartu nahi dutenak etikaren, iraunkortasunaren eta elkartasunaren ikuspegitik.

**Iraupena**: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

4. edizioa (2023/02/13 - 2023/03/24) euskaraz eta gaztelaniaz egin da, eta **45 ikaslek** parte hartu dute (% 62,2 emakumeak, % 37,8 gizonak), % 49ko arrakasta tasarekin.

Informazio gehiago



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (6)

### Beste batzuk

**ONLINE IKASTAROA:** "EmantzipAkzioa: beste mundu posible batzuetarako teoria eta praktika klinikoak"




**IKASTARO ERDIPRESENTZIALA:** "Garapena, Lankidetza eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiei buruzko XXIV. mintegia"



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (1)

### *Gaztenpatiako Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzari (POI) buruzko TAILERRA: diseinua eta inplementazio praktikoa ikasgelan*

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza bezalako metodologia aktiboak erabili nahi dituzten UPV/EHUko irakasleentzat, Garapenerako Lankidetzako Gaztenpatia proiektuak erabilita.

**Iraupena:** 75 ordu (18 ordu presentzial eta 57 ordu ez-presentzial, 2022ko urtarrila - 2023ko urtarrila) (3 ECTS kreditu).

Guztira, UPV/EHUko **22 irakaslek** eman zuten izena (15 emakume, 7 gizon), hainbat jakintza adarretakoak.



Informazio gehiago

# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (2)



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Ikasleentzako prestakuntza (3)

**ONLINE IKASTAROA: "*GIHak UPV/EHUren irakaskuntzaren parte bihurtzea: lehenengo gogoetak*"**

Irakasleentzat eta graduko, masterreko edo ikastegiko arduradunentzat, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) txertatu nahi dituztenak beren irakasgai edo tituluetan.

**Iraupena:** 25 ordu (1 ECTS kreditu), ZURE KABUZ modalitatea.

1. edizioa (2023/01/10 - 2023/02/28) eta 2. edizioa (2023/06/01 - 2023/07/13) euskaraz eta gaztelaniaz egin dira, eta **70 ikaslek** parte hartu dute (% 68,6 emakumeak, % 31,4 gizonak), % 87,1eko arrakasta tasarekin.

Informazio gehiago



# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Beste batzuk




Erakusketa: Erakusteko kamisetak




Klima eta osasun krisiari buruzko hackatoia

# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Beste batzuk




i3 Jendartea 2023




Gazte Ekoliderrak 2023

# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Beste batzuk

### Ongietorri jardunaldiak 2023

Irailean, ikasturtea hastean, "**Ongietorri jardunaldiak 2023**" egin ziren hiru campusetan. Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak informazio stand bat jarri zuen, bere zereginaren berri emateko, besteak beste, ikasle berriei eta Erasmus programako atzerriko ikasleei.

[Informazio gehiago]






# Prestakuntza eta instalazioak eskaintzea unibertsitateko kideei, proiektu berritzaileak garatzeko iraunkortasunaren esparruan

## Iraunkortasunerako hezkuntza sareetan parte hartzea

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Garapenerako Lankidetzaren inguruko Unibertsitate Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko programa (1)

Nahitaezko praktikak eta GRALa lankidetza erakundeek garapenean dauden herrialdeetan dituzten proiektuetan egiteko programa.

**20. edizioan**, **41 ikaslek** (% 82,9 emakumeak, % 17,1 gizonak) parte hartu dute, UPV/EHUko 10 ikastegitakoak, eta 9 herrialdetan egin dituzte beren praktikak eta GRALak.

Informazio gehiago



Garapenerako Lankidetzaren inguruko Unibertsitate-Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko diru-laguntzetarako deialdia

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Garapenerako Lankidetzaren inguruko Unibertsitate Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko programa (2)

Gainera, 2023ko maiatzaren 23an ospatu zen **Garapenerako Lankidetzaren inguruko Unibertsitate Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko programaren** 20. urteurrena, Bizkaia Aretoan.

Ekitaldian izan ziren errektorea eta programaren hainbat ediziotan parte hartu duten irakasleak, ikasleak eta lankidetza erakundeen ordezkariak. Vanessa Sanchezek egin zituen moderatzaile lanak eta perkusio talde batek girotu zuen ekitaldia.








# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Garapenerako Lankidetzaren inguruko Unibertsitate Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko programa (3)

**Aitortza BEREZIAK:**

- **Ikasle parte hartzaile % handiena izan duen IKASTEGIA:** Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (330 ikasle)
- **Programan ikasle gehien tutorizatu dituen IRAKASLEA:** Arrate Aguirrezabal (UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Garapenerako Lankidetza Praktiken arduraduna) (41 ikasle)
- **EUSKADIKO LANKIDETZA ERAKUNDEA:** HAURRALDE FUNDAZIOA (369 ikasle)
- **PROGRAMA BULTZATU DUTEN PERTSONAK:**
  - Iratxe Amiano (lehen, UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)
  - Clara Murguialday (UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoko lehenengo teknikaria)
  - Espe Etxeandia (UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoko lehenengo administrazio laguntzailea)

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Gaztenpatia programa (1)

Martxan jarri da **Gaztenpatiaren VII. edizioa**.

Gaztenpatiak, Euskal Fondoaren eta UPV/EHUren egitasmoa, aukera ematen die unibertsitateko ikasleei beren curriculum edo borondatezko praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GRAL) egiteko Euskal Fondoaren erakunde eta entitate bazkideek Latinoamerikan garatzen dituzten proiektuetan.

Guztira, **27 ikaslek** egin dituzte (% 81,5 emakumeak, % 18,5 gizonak) beren praktikak edo GRALa El Salvador, Kolonbia eta Guatemalako garapenerako lankidetza proiektuen barruan.

Programaren web plataforma: https://gaztenpatia.eus/eu/




gaztenpatia

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Gaztenpatia programa (2)

Gainera, 2023ko maiatzaren 22tik 26ra, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan, VI. Gaztenpatia Topaketa egin da, esperientziak trukatzeko Gaztenpatia proiektuen kontraparteetako Latinoamerikako ordezkariekin.




Topaketaren bideoa

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Ikasleak erakundeetan boluntario aritzeko egin beharreko kudeaketa lana

Hautazko kredituak aitortu dira gizarte erakundeetan eta UPV/EHUren berezko programetan eginiko elkartasun eta lankidetza jarduerengatik.

2023an erantzun zaie boluntariotza eta lankidetza jarduerengatiko 202 eskaerari (% 76,2 emakumeak, % 23,8 gizonak), eta **557,5 kreditu** aitortu dira guztira, **16.725 dedikazio orduri** dagozkionak.

Informazio gehiago



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Boluntariotza autogestionatuko ekimenak bultzatzea eta sostengatzea

Bultzada eman zaio boluntario programa autogestionatuari, hainbat jarduera egiteko unibertsitate eremuan. Publiko osoarentzat zabalik dauden jarduerak dira, bai eta gizarte erakundeetan egitekoak ere, antolakuntzaren hartzaileentzat.

Horretarako, bideo batzuk egin eta zabaldu dira.

Informazio gehiago



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Boluntariotza sustatzeko beste ekimen batzuk (1)




Europako Elkartasun Kidegoa






OZEANO belaunaldia: EKIN!

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Boluntariotza sustatzeko beste ekimen batzuk (2)



Boluntariotzako erakundeen erakusleihoak

Elikagaien bankua: Bilketa handia: azaroak 24-25



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasun eta garapenerako lankidetza ekimenetan

## Boluntarioen prestakuntza

**ONLINE IKASTAROA: *"Boluntariotzaren hastapenak. Prestakuntza gizarte eraldaketarako"***

UPV/EHUko kideentzat (ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZP, EHUalumni)

**Iraupena**: 12,5 ordu (0,5 ECTS kreditu).

Urte osoan egin daiteke. Dagoeneko **650 lagunek** eman dute izena (559 gaztelaniaz, 103 euskaraz), eta **493 ziurtagiri** eman dira (419 gaztelaniaz, 74 euskaraz).

Informazio gehiago



# Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez, UPV/EHUk hartu dituen konpromisoak betetzea.

## Errefuxiatuentzako eta asilo eskatzaileentzako UPV/EHUren harrera programa (1)

**UPV/EHUk ERABAT DEFENDATZEN DITU NAZIOARTEKO BABES EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK**




UPV/EHUk, bat etorriz Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean aho batez hartutako erabakiarekin, bere gain hartzen du argi eta garbi asilo eta babes eskaera egin duten pertsonen defentsa. Erabaki horretan, konpromisoa hartu zuen Euskadin babesa eskatu duten pertsonei laguntzeko, hainbat egitasmoren bidez. Lau dira jardun lerro nagusiak:

1. Egoera akademikoa erregularizatzeko eta unibertsitatera sartzeko laguntza
2. Unibertsitate eremuko premia bereziei erantzuteko laguntza
3. Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea
4. Nazioarteko babesa duten unibertsitateko kideentzako laguntza ekonomikoa eta materiala, 20.000 euroko funts baten bidez.

# Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez, UPV/EHUk hartu dituen konpromisoak betetzea.

## Errefuxiatuentzako eta asilo eskatzaileentzako UPV/EHUren harrera

**2022/2023 ikasturtean,** administrazio izapideak egin dira nazioarteko babesa duten hainbat herrialdetako (Siria, Afganistan, Errusia, Ukraina, Sahara, Peru, Kolonbia, Venezuela eta Nikaragua) **25 pertsonari** laguntzeko (% 48 emakumeak, % 52 gizonak). Laguntzak izan dira unibertsitatera sartzeko, ikasketak jarraitzeko eta unibertsitate eremuan dituzten premiei erantzuteko (alojamendurako, mantenurako, garraiorako, materialak eskuratzeko... laguntza ekonomikoak). Era berean, 4 laguni alojamendua eta mantenua eman zaizkie UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan (% 100 gizonak).

**2023/24 ikasturtean**, nazioarteko babesa duten **36 ikasle** (% 44,4 emakumeak eta % 55,6 gizonak) matrikulatu dira UPV/EHUren graduetan, 3 campusetako 13 ikastegitan. 10 herrialdetako ikasleak dira.

# Hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten entitateekiko lankidetza bistaratzea

## Hitzarmenak

# Hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten entitateekiko lankidetza bistaratzea

## Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko entitateekin batera egiten dugun lana bistaratzea (1)

Lankidetzaren eta elkartasunaren arloan, ekitaldi ugari antolatu dira beste erakunde batzuekin batera (eztabaidak, erakusketak, zineforum...). Nabarmentzekoa da "**Ikusezina Express**" film laburren lehiaketa, **"Zuen filmak mundua aldatuko du, hoberena ikusteko dago"** tematikarekin, Kultura Comunication Desarrollo GGKErekin elkarlanean antolatua. **128 ikaslek** parte hartu dute (% 67,9 emakumeak, % 32,1 gizonak).




**Sariak:**

- Epaimahaiaren saria: "Esnatu"
- Publikoaren saria: "El Cambio"

Informazio gehiago

# Hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten entitateekiko lankidetza bistaratzea

## Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko entitateekin batera egiten dugun lana bistaratzea (2)

### BESTE BATZUK:

**Bineta erakusketaren aurkezpena - GAZTEBI**

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak Lan Harreman eta Gizarte Langintzaren Fakultateak eta UPV/EHUko GEZKI Institutuak antolatutako GAZTEBI bineten erakusketan parte hartu du, Estibaliz Sáez de Camararen parte-hartzearekin.

Informazio gehiago



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

2019an, UPV/EHUk, bat etorriz garapen iraunkorraren 2030 Agendaren aldeko bere apustuarekin, onartu zituen garapen iraunkorrerako EHUagenda 2030 eta UPV/EHUren Garapen Iraunkorrerako Adierazleen Panela. 2022/2023 ikasturteari dagokion adierazleen panela kalkulatu da, eta haien **bilakaera** aztertu.

6 urte hauetan, **joera positibo bat ikus daiteke iraunkortasunaren sustapenean.** Oro har, hobekuntza nabarmenak izan dira zenbait arlotako adierazleetan: Kalitatezko hezkuntza (4. GJH), Genero berdintasuna (5. GJH), Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea (7. GJH), Industria, berrikuntza eta azpiegitura (9. GJH), Klimaren aldeko ekintza (13. GJH) eta Hizkuntza eta kultura aniztasuna (17+1 GJH).



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

58 adierazleen panelaren bidez UPV/EHUk GIHei eginiko ekarpenaren jarraipena egiteaz gain, urtero aztertzen da ere ekoizpen zientifikoak eginiko ekarpena 2030 EHUagendan jasotako 12+1 GIHei. Web of Science (WOS) eta SCOPUSen indexatutako aldizkarietan argitaratu diren artikulu zientifikoak hustuz egiten da.

Guztira, 2017-2023. urteetan, 2.808 artikulu argitaratu dira. **2023an, 565 artikulu**.

GIH hauetan izan da ekoizpen zientifiko handiena: 3. GIH (osasuna eta ongizatea), 7. GIH (energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea), 12. GIH (ekoizpen eta kontsumo arduratsua) eta 13. GIH (klimaren aldeko ekintza). Guztiak, 2030ean Europa Iraunkor bat lortzeko Europako Batzordearen ildo estrategikoak.

[Informazio gehiago]




108 argitalpen




87 argitalpen




78 argitalpen




104 argitalpen

# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## UPV/EHUko IKASLEEN VI. BILTZARRA

*"Gradu amaierako gure lanek mundua eraldatzeko balio dute"* lemapean, erreferente izan nahi du datozen ikasturteetan, eta bistaratu eta aitortu egin nahi dira graduko ikasleek 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuen inguruan egiten dituzten lanak.

**41 gradutako 99 komunikazio proposamen** jaso ziren.

- Gizarte eta Lege Zientzietako 40 GRAL
- Ingeniaritza eta Arkitekturako 22 GRAL
- Osasun Zientzietako 14 GRAL
- Zientzietako 11 GRAL
- Arteen eta Giza Zientzietako 12 GRAL

99 lagunek parte hartu zuten (% 68,8 emakumeak, % 31,3 gizonak).



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## UPV/EHUKO IKASLEEN VI. BILTZARRA

Sariak banatzeko ekitaldia egin zen 2023ko azaroaren 9an, Bizkaia Aretoko Baroja gelan, eta urteko 8 GRAL onenak saritu ziren, bat ardatz tematiko bakoitzeko (Pertsonak, Planeta, Oparotasuna, eta Bakea eta Aliantzak).

Esteka honetan ikus daitezke sari guztiak.



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## Q-EPEA JARDUNBIDE EGOKIEN SAIOA: GIHEN KUDEAKETA

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak, beste erakunde batzuekin batera (AFA, SPRI, Euskadiko Parke Teknologikoak, EUSKALIT, Osakidetza...), elikagai xahuketaren arloko bere jardunbide egokiak aurkeztu zituen: "UPV/EHUagenda 2030. Planeta Campusa. UPV/EHUko elikagai xahuketaren kalkulua".

[Informazio gehiago](#)




Q-epea
Euskal Erakunde Publikoak Kudeaketa Aurreraturantz
Entidades Públicas Vascas por la Gestión Avanzada

# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## UDA IKASTAROA: "*Garapen iraunkorrerako hezkuntza eta kultura*" (1)

**Zer papera dute kulturak eta hezkuntzak kontratu sozial berrian eta 2030 Agendaren esparruan?**

UPV/EHUk antolatutako ikastaroa, SDSN España (Sustainable Development Solutions Network), UNetxea eta Eusko Jaurlaritzarekin batera. Ikastaroa adituen arteko eztabaidan eta publikoarekiko elkarrizketan oinarritutako prestakuntza teoriko-praktikoa izan zen, baita ardatz teorikoak lurreratzen dituzten kasu inspiratzaileen aukeraketa ere.

Guztira, 17 pertsonek parte hartu zuten (17 emakume eta 2 gizon).



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## UDA IKASTAROA: “*Garapen iraunkorrerako hezkuntza eta kultura*” (2)




Helburuak:

- Kultura eta hezkuntza binomioak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan duen inpaktua bistaratzea.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak kultura eta hezkuntza praktikan txertatzeko modua aztertzea, bi-biak aliantzan landuta.
- Kulturaren, hezkuntzaren eta garapen iraunkorraren intersekzioan diharduten kasu interesgarriak azaltzea.

Informazio gehiago

# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## IKASTARO PRESENTZIALA: *"2030 Agenda, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) eta horien integrazioa UPV/EHUn"*

UPV/EHUko teknikarientzat eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat (TEKAZEL).

**Iraupena:** 4 ordu (campus guztietan).

Ikastaro honek aztertzen ditu 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak, bai eta helburu horien integrazioa ere UPV/EHUren jardueran.

Ikastaro honetan 41 pertsonek parte hartu zuten (34 emakume eta 7 gizon).

Informazio gehiago



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## GIHEN ALDEKO EUSKAL ALIANTZA

2023ko urriaren 2an, Artium Museoa (Vitoria-Gasteiz) GIHen aldeko Euskal Aliantza eratzeko agertokia izan zen.

Egitasmo honen xedea da elkarlanean aritzea 2030 Agendarekin, Garapen Iraunkorrerako Helburuak betetzeari begira, eta oinarritzen da **"Agenda 2030 Euskadi Kontratu Sozial baterako"** adierazpenean.

UPV/EHU adierazpenarekin bat egin duten 55 erakundeetako bat da.

Informazio gehiago, konpromisoak eta inplikazioak

# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## GARAPEN JASANGARRIAREN ALDEKO ARABAKO ALIANTZA

Arabako Foru Aldundiaren bultzadaz, aliantza honen bidez indarrak batu nahi dira, sare parte-hartzaile zabal eta sendo bat ehundu, eta lurraldeko eragileen artean sinergiak sortu nahi dira, 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen alde.

UPV/EHU liderra da GIH4ean. Kalitatezko hezkuntza.

Informazio gehiago

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

Garapen Jasangarriaren Aldeko Arabako Aliantza
Alianza Alavesa por el Desarrollo Sostenible
araba álava

# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan

## LA GRANDA IKASTAROA “Etorkizuna ziurtatzeko unibertsitate iraunkorrak”

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak abuztuaren 7an Avilesen egin zen La Granda ikastaroan parte hartu zuen, 'Etorkizuna ziurtatzeko unibertsitate iraunkorrak' gaiari buruzkoa.

Bertan, Estibaliz Sáez de Camarak "Akademiak iraunkortasunerantz aurrera egiteko dituen aliantzei" buruz hitz egin zuen.

Informazio gehiago



# Nazio Batuen 2030 Agenda txertatzea unibertsitateko eguneroko zereginetan



## UNESCO IESALC IKASTAROA "UNIBERTSITATEKO LIDERGO ETA GOBERNANTZA IRAUNKORRA. 2030 AGENDARAKO BIDEA "

Ikastaroa (40 ordukoa) IESALCek garatu du, eta unibertsitateetako gobernu-taldeak GIHetan eta Agenda 2030ean orientatzea du helburu.

Estibaliz Sáez de Camarak irailaren 19-22an Madrilen egindako programaren hasierako saioetan parte hartu zuen, garapen iraunkorrerako EHUagenda 2030a aurkeztuz.

Aste honetan zehar, Latinoamerikako unibertsitateetako errektoreek esperientziak eta jardunbide egokiak partekatu zituzten iraunkortasunaren munduko adituekin, eta 2030 Agendaren alde elkarrekin lan egiteko konpromisoa sinatu zuten.

Informazio gehiago

# EHUko Prentsa

- “Bizi kalitatea, ingurumena eta birziklapen ohiturak” jardunaldia
- VI. Ikasleen Batzarrean emandako zortzi sarietatik zazpi neskentzat izan ziren.
- Iristear da Zientzia Astea 2023!
- Kontsumobidek eta UPV/EHUk elkarlanean dihardute kontsumo gaietan trebatzen unibertsitateko ikasleak.
- Aipamen berezia Arkitektura Goi Eskola Teknikoko proiektu batentzat.
- UPV/EHUk Astekliman parte hartzen du, Ikertzaileen Europako Gaua egitasmoan.
- UPV/EHUk eta Euskadiko Parke Teknologikoak ibilgailuak kargatzeko puntu bikoitz bat instalatu dute Leioan, mugikortasun elektrikoa bultzatzeko.
- Ikasturte amaierako ekitaldia IkasLagun programan
- EHezi i3 proiektuaren amaierako ekitaldia.
- Euskadik unibertsitate graduondoko bat izango du, 2030 Agenda eta GIHetako espezialista titulua lortzeko.
- 1.300 ikasle baino gehiago aritu dira lanean 110 GKEetan, Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako 37 herrialdetan.

# **Iraunkortasuna** buletina

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak bere **newsletterra** argitaratuko du.

Hamabostean behin, buletinak argitaratuko ditu iraunkortasunaren kultura unibertsitateko kideen artean sustatzeko gure egitekoarekin loturiko albiste eta ekitaldi interesgarrienak.

**Harpidetzeko**, nahikoa da sartzea zure helbide elektronikoa.

Ikus gure newsletterra hemen.


Iraunkortasunabuletina

Miércoles, 29 de noviembre de 2023

Número: 02

PLATAFORMA

¿Te vas a perder el sorteo de cuatro cestas de navidad?

Seguimos celebrando el lanzamiento de nuestra plataforma ATTUNE - Activate the University for Climate Change. Regístrate hasta el 5 diciembre, supera el primer reto y espera a nuestras noticias...

INFORME

Medir para reducir

Se acerca la época más consumista del año y qué mejor momento para reflexionar sobre nuestros hábitos. Ya está disponible el "Informe sobre desperdicio alimentario en la UPV/EHU".

NOTICIAS DE INTERÉS

El ODS 18 ya tiene metas definidas en la CAV

El Departamento de Cultura y Política Lingüística de Gobierno Vasco ha dado a conocer el despliegue de metas para el objetivo "Diversidad lingüística y cultural" de la Agenda 2030 tras un proceso técnico y participativo llevado a cabo a lo largo de 2023.

Se ha publicado el Diccionario Plurilingüe de la Agenda 2030

Con 3.600 entradas en euskera, castellano e inglés, se trata de una novedosa iniciativa promovida por el Gobierno Vasco, Danobatgroup y Elhuyar y que ya está disponible online para todas las personas usuarias interesadas.

1

PRÓXIMOS EVENTOS


eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL
EMAN TA
ZABAL ZAZU